

Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.

Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián

Neuk ziurtatua: Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2021eko martxoaren 8an egindako ez ohiko eta premiazko bilkuran, erakunde-adierazpen hau onartu zuela, gehiengoz:

Dimentsio askotariko krisi sistemiko batean gaude, zeina gurutzatu eta erlazionatu egiten baita aurretik zeuden beste krisi batzuekin; esaterako, ekologikoarekin eta zaintza arlokoarekin. Pandemiak agerian utzi ditu mugimendu feminista eta emakumeen kolektiboak egiten ari ziren zenbait aldarrikapen: pertsonen bizitza zaugarria da, eta giza ingurunearen, ingurumenaren eta ingurune komunitarioaren zeharo mendekoa.

Gaur, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, pandemiak eta pandemia kudeatzeak baldintzatutako urte honetan, aintzat hartu beharra dago emakumeek pandemiaren eta haren ondorioen aurka borrokatzeko mundu osoan egindako ekarpena. Bizitzari baldintza duin eta zuzenetan eusteko errotik apustu egiteko unea da: horrek ikuspegi feminista bat eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan; izan ere, hilabete hauetan genero desberdintasun estrukturalak areagotu dela errealitate eztabaiaezina da.

Zaintzea ere emakumei egokitu zaie, batez ere haiek eraman dute krisi sanitario eta sozial honetan funtsezkoak izan diren zerbitzu askoren zama. Emakumeen artean ere banaketa desorekatua da, klase sozialaren, arrazializazioaren eta migrazio estatusaren arabera. Gainera, kasu gehienetan, egoera prekarioan egindako lanak dira. Berdintasunik gabeko banaketa horrek zaintza sistemaren prekaritatea ere azaleratu du, eta lehendik ere bazeuden desberdintasunak areagotu ditu.

Ondorioz, gizarteak bere aitortpena adierazteko moduak konpromiso irmoa izan behar du, berdintasunik gabeko banaketa bidegabe horri euskarria ematen dioten genero arrakalaren aurka borrokatzeko. Zaintza lan guztiei

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 8 de Marzo de 2021, aprobó, por mayoría, la siguiente Declaración Institucional:

“Vivimos una crisis multidimensional, sistémica, que se cruza e interrelaciona con otras crisis que ya venían de antes, como la ecológica y de cuidados. La pandemia ha puesto en evidencia reivindicaciones que desde el movimiento feminista y los colectivos de mujeres se venían haciendo: que la vida humana es vulnerable y profundamente dependiente del entorno humano, medioambiental y comunitario.

Hoy 8 de marzo, en el día internacional de las Mujeres, un año marcado por la pandemia y su gestión, corresponde hacer un reconocimiento a la aportación de las mujeres a la lucha para combatir la pandemia y sus consecuencias. Es el momento de realizar una apuesta radical por sostener la vida en condiciones dignas y justas: esto exige una mirada feminista en todas las políticas que impulsemos desde las instituciones, porque el aumento de las desigualdades estructurales de género durante estos meses es una realidad incontestable.

También la provisión de los cuidados ha recaído en las mujeres, siendo ellas las que se han cargado mayoritariamente de muchos de los servicios que han resultado esenciales en esta crisis sanitaria y social. Incluso el reparto entre las mujeres se da de forma desequilibrada, por clase social, por racialización y estatus migratorio. Por si fuera poco, en la mayoría de los casos se trata de trabajos en condiciones precarias. Este desigual reparto ha desvelado la debilidad del sistema de cuidados, profundizando en las desigualdades que ya venían existiendo.

Por tanto, el reconocimiento social debe expresarse en forma de un férreo compromiso público para combatir las brechas de género que sostienen este reparto desigual e injusto. Es tiempo de poner en su justo valor todos los



dagokien balioa emateko garaia da, eta aurrera egiteko erantzunkidetasun handiagoko eredu baterantz, pertsona guztientzat ekitate eta ongizate handiagoa sortzeko.

Udalak gaude lehen lerroan, pandemiari eta hark pertsonengan dituen ondorioei aurre egiten, eta liderrak izan behar dugu zaintzari eta haren hornikuntzari buruzko politika publikoak bultzatzeko orduan. Horregatik, martxoaren 8ak balio behar du Udal honek krisiaren ondoriozko larrialdiei erantzungo dieten eta erdigunean bizitza zaintzea jarriko duen gizarte eredu baterantz doazen politika feministekin duen konpromisoa berresteko.

Horregatik guztiagatik, Donostiako Udalak, bere eskumen esparruaren barruan, honako konpromisoak hartzen ditu:

1. Gizartean zaintza antolatzeko ereduari buruzko eztabaida bultzatzea, abiapuntu hartuta bizitza erdigunean jartzea eta zaintzaren erantzunkidetasun sozial eta komunitarioa dituen ikuspuntu feminista bat.

2. Analisia egitea, genero ikuspuntutik, kolektibo zaurgarrien egoerari eta beharizanei buruz, bai eta COVID-19aren ondorioei buruz ere, eta horiei aurre egiteko premiazko neurriak martxan jartzea.

3. Konponbide bideragarriak aztertzea eta ezartzea adingabekoen eta mendekotasuna dutenen zaintzari laguntzeko tokiko zerbitzuentzat, zaintza baldintza duin eta bidezkoetan egin dadin saiatuta edo erraztuta, bai ematen duenarentzat bai jasotzen duenarentzat ere.

4. Udalaren berdintasun plangintzetan espresuki azpimarratzea emakumeen ahalduntzea, zaintzaren balioa, eta hari dagokionez gizonek duten erantzunkidetasuna, bai eta, tokiko politika guztietan, tokiko berdintasun politikak eta genero zeharkakotasuna garatzeko langileak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak indartzea eta zaintzea ere.

5. Hainbat sektoretako zaintzaileen arteko topaketarako espazioak sustatzea edo babestea.

6. Etxeko langileen egoera aztertzea eta horien lan baldintzak eta bizi baldintzak hobetzeko programa integralak abian jartzea.

trabajos de cuidado y avanzar hacia un modelo más corresponsable que genere más equidad y bienestar entre todas las personas.

Los Ayuntamientos, que somos los que estamos en primera línea para combatir la pandemia y sus consecuencias sobre las personas y comunidades, debemos liderar el impulso de las políticas públicas sobre los cuidados y su provisión. Por ello, el 8 de Marzo debe servir para reafirmar el compromiso de este Ayuntamiento con políticas feministas que respondan a las urgencias derivadas de la crisis y transiten hacia un modelo de sociedad que ponga el cuidado de la vida en el centro.

Por ello, el Ayuntamiento de San Sebastián, en el marco de sus competencias, se compromete a:

1. Impulsar un debate sobre el modelo de organización social de los cuidados desde un enfoque feminista basado en la centralidad de la vida y la corresponsabilidad social y comunitaria en el cuidado.

2. Analizar con enfoque de género la situación y necesidades de los colectivos más vulnerables y los efectos de la COVID-19, y poner en marcha medidas urgentes para hacerles frente.

3. Estudiar y articular soluciones viables para los servicios locales de apoyo al cuidado de menores y personas dependientes, procurando y/o facilitando el cuidado en condiciones dignas y justas, para quien lo da, y para quien lo recibe.

4. Incidir en los Planes de Igualdad municipales de manera expresa, en el empoderamiento de las mujeres, la puesta en valor de los cuidados y la corresponsabilidad de los hombres en los mismos, así como reforzar y preservar el personal y recursos técnicos y económicos para el desarrollo de las políticas locales de igualdad y de la transversalización de género en todas las políticas locales.

5. Promover y/o apoyar espacios para el encuentro entre personas cuidadoras de diferentes sectores.

6. Analizar la situación de las trabajadoras del hogar y poner en marcha programas integrales para mejorar sus condiciones laborales y vitales.



7. Ahalduzte eskolei eta emakumeen etxeei baliabideak ematen jarraitzea, eta emakumeen, nerabeen eta neskatuen ahalduzte indibidual eta kolektiborako ekintzak bultzatzea, kolektibo feministen eskutik.

8. Donostiako Udalak egun hori beste modu batean ospatzera animatzen ditu Donostiako herritarrek, pandemiaren ondoriozko osasun neurri eta gomendioekin bateragarriak diren udal programekin eta elkarte feministen jarduerekin bat eginda”.

=====

7. Continuar proporcionando los recursos a las Escuelas de Empoderamiento y Casas de las Mujeres e impulsar acciones para el empoderamiento individual y colectivo de mujeres, adolescentes y niñas, de la mano de colectivos feministas.

8. El Ayuntamiento de San Sebastián anima a la ciudadanía donostiarra a conmemorar este día de un modo diferente, sumándose a los programas municipales y las actividades de las diferentes asociaciones feministas que sean compatibles con las medidas y recomendaciones sanitarias derivadas de la pandemia”.

=====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatezak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2021eko martxoaren 12an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 12 de marzo de 2021.

IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL

Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA

ALKATEAK O. E. -
V. ° B. ° DEL ALCALDE: